

## AMA, NI PASIONISTA NOA

*Doinua: "Maritxu, nora zoaz"*

**1**

- Patxi, zergaitik zabiltz hain pozez beterik?
- Ama, zertxobait daukat hementxe gorderik.
- Ez dozu gura, seme, neuri esaterik?
- Ama, Pasionista joan gura dot nik.

**4**

- Komentuan sartzeko ez zagoz txarra zu!
- Jesusek gura dau ta ama, itzidazu.
- Deabru kume hori zu nork behar zaitu?
- Okerrenak ei dira onenak, amatxu.

**7**

- Dirurik ez daukagu gure etxe zaharrean
- Hiru txahal dagoz, ama korta baztarrean
- Horreik zeuk iruntzita gu modu txarrean?
- Ezin dozuna, bota prailen bizkarrean.

**2**

- Nora joango zara etxetik kanpora?
- Gabiriara, ma, Jesusen ondora.
- Umegorri zara ta zu kolejiora?
- Neu langoxeak bertan ei dagoz gustora.

**5**

- Zuk ezin zeinke, ume hainbeste ikasi.
- Jainkoak emogo deust -behar dodan grazi.
- Praile motz geratzeko hobe da ez hasi.
- Oindino ikusi baietz zuk altaran Patxi.

**8**

- Zelan izten gaituzu ama eta aita?
- Pasionista noa Jaungoikoak nahita.
- Zeure guraso zaharrak zuk ez dozuz maita.
- Gurasoak baino lehen Jaungoikoa baita.

**3**

- Hortarako oindino hain zara gaztia!
- Arin amaitzeko hobe denporaz hastia.
- Ondo deritxazu gu bakarrik iztia?
- Lehenago izango naz Pasionistia.

**6**

- Zu ortozik ibili, zuk ohol gainean lo?
- Hori baino ez bada gaurtik gertu nago.
- Praileak txarto janda penitentzi asko
- Baina gehienak dagoz gizen ta morrozko.

**9**

- Jesusek gura badau seme, joan zaitez.
- Eskerrik asko, ama, bete nozu pozez.
- Jaunak lagun deizula buruz ta bihotzez
- Ama, zenbat apustu: Praile urten baietz!